

**GOIERRIKO HERRIEN EKINTZA
FUNDAZIOAREN KONTRATAZIORAKO
BARNE JARRAIBIDEAK**

1. XEDEA

Kontrataziorako Barne Jarraibide (aurrerantzean KBJ) hauen xedea da Goierriko Herrien Ekintza Fundazioaren (aurrerantzean, Fundazioa edo GHE, bata nahiz bestea) kontratatzeke barne prozedura arautzea, erregulazio harmonizatuaren mende ez dauden kontratuak esleitzeko, Sektore Publikoko Kontratuak buruzko testu bateratuari, 3/2011 Legegintzako Errege Dekretu bidez onetsitakoari (aurrerantzean, SPKTB) jarraituz. SPKTBren ondorioetarako, GHE sektore publikoaren parte da 3.1 artikulua araberan eta botere esleitzaitzat jotzen da, nahiz eta Herri Administrazio izaerarik izan ez, 3.3 b) artikuluari jarraiki.

Fundazioaren Patronatuak **2010/06/22an** onartutako KBJ hauek Fundazio barruan derrigor bete beharrekoak dira, onartu ziren datan bertan jarri ziren indarrean eta data horretatik aurrera hasitako kontratazio prozeduretan aplikatzekoak dira.

**2. KBJ HAUETAN ARAUTUTAKO
KONTRATUEN IZAERA ETA
ARAUBIDE JURIDIKOA**

GHEk egindako kontratuak kontratu pribatutzat joko dira betiere, SPKLTBren 20.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

KBJ hauek hirugarrenekin egiten diren kontratu guztietan jarraitu beharreko jarduketa metodologia ezartzen dute. Zehazki, KBJ hauek erregulazio harmonizatuaren mende ez dauden kontratuak esleitzeko barne prozedurak arautzen dituzte;

**INSTRUCCIONES INTERNAS DE
CONTRATACIÓN DE FUNDACIÓN GOIERRIKO
HERRIEN EKINTZA**

1. OBJETO

Es objeto de las presentes Instrucciones Internas de Contratación (en adelante, IIC) la regulación del procedimiento interno de contratación de la Fundación Goierriko Herrien Ekintza (en adelante, la Fundación o GHE, indistintamente) para la adjudicación de los contratos no sujetos a regulación armonizada, en cumplimiento del Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público (en adelante, TRLCSP).

A los efectos del TRLCSP, GHE forma parte del sector público en los términos del artículo 3.1 y tiene la consideración de poder adjudicador a pesar de no ostentar el carácter de Administración Pública, en aplicación del artículo 3.3 b).

Estas IIC, aprobadas en fecha **22/06/2010** por el Patronato de la Fundación, son de obligado cumplimiento interno, entran en vigor en la misma fecha en la que son aprobadas, y serán de aplicación a los procedimientos de contratación iniciados a partir de esa fecha.

**2. NATURALEZA Y RÉGIMEN JURÍDICO
DE LOS CONTRATOS REGULADOS EN
LAS PRESENTES IIC**

Los contratos celebrados por GHE tienen en todo caso la consideración de contratos privados conforme a lo establecido en el artículo 20.1 del TRLCSP.

Las presentes IIC, establecen la metodología de actuación a desarrollar en todos los contratos que se celebren con terceros. En particular, estas IIC regulan los procedimientos internos

publizitate, lehia, gardentasun, konfidentzialtasun, berdintasun eta bereizkeriarik ezaren printzipioen eraginkortasuna bermatuta gera dadin, eta kontratua ekonomikoki onuragarriena den eskaintza aurkezten duenari esleitzeko, SPKLTBren 191.b) artikulua xedatutakoa osoki betez.

Bereziki, GHEk, batetik, eta *"Sektore publikoaren kontratazioaren konfigurazio orokorra eta kontratuen egiturazko elementuei"* dagokienez, SPKLTBren I. Liburuko xedapenen bidez arautuko du bere kontratu jarduera, betiere, xedapenon edukia GHEri -Herri Administrazioa ez den botere esleitzaila den aldetik- aplikatzekoa izanez gero. Bestalde, GHEk, kontratuen esleipenari dagokionez, SPKLTBren III. liburuaren I. tituluaren II. kapituluko 1. ataleko xedapenei jarraituko die.

3. APLIKAZIO EREMUA

Kontrataziorako Barne Jarraibideak GHEk egiten dituen kontratu gastu-ekarle guztiei aplikatuko zaizkie, honako hauei izan ezik:

- a) SPKLTBren 4. artikuluan jasotako negozio eta harreman juridikoei.
- b) Erregulazio harmonizatuaren mende dauden kontratuei, SPKLTBren 13. eta bat datozen artikuluen arabera; izan ere, kontratuon esleipenak SPKLTBren 190. artikuluan xedatutakoari jarraituko dio.
- c) Erregulazio harmonizatuaren mende dauden diruz lagundutako kontratuei, SPKLTBren 17. eta bat datozen artikuluen arabera; izan ere, kontratuon esleipenak SPKLTBren 190. artikuluan xedatutakoari jarraituko dio.

para la adjudicación de los contratos no sujetos a regulación armonizada, de forma que quede garantizada la efectividad de los **principios de publicidad, concurrencia, transparencia, confidencialidad, igualdad y no discriminación**, así como que el contrato sea adjudicado a quien presente la oferta económicamente más ventajosa, dando con ello pleno cumplimiento a lo dispuesto por el artículo 191.b) del TRLCSP.

En especial, GHE regulará su actividad contractual, por una parte, en cuanto a la *"Configuración general de la contratación del sector público y elementos estructurales de los contratos"* por las disposiciones contenidas en el Libro I de la TRLCSP, que, por su contenido, resulten de aplicación a GHE en su consideración de poder adjudicador distinto a la Administración Pública. Por otra parte, GHE se regirá, en cuanto a la adjudicación de los contratos, por las disposiciones contenidas en la Sección 1ª del Capítulo II del Título I del Libro III del TRLCSP.

3. ÁMBITO DE APLICACIÓN

Las IIC se aplicarán a todos los contratos onerosos celebrados por GHE excepto los siguientes:

- a) Los negocios y relaciones jurídicas recogidas en el artículo 4 del TRLCSP.
- b) Los contratos sujetos a regulación armonizada (en adelante, contratos SARA) conforme a los artículos 13 y concordantes del TRLCSP, cuya adjudicación se regirá por lo dispuesto en el artículo 190 del TRLCSP.
- c) Los contratos subvencionados sujetos a una regulación armonizada, conforme al artículo 17 y concordantes del TRLCSP, cuya adjudicación se regirá por lo dispuesto en el artículo 190 del TRLCSP.

- d) Sektoreko araudi aplikagarriak araututako edo berariaz salbuetsitako kontratu eta negozioei, kontratu eta negozio horiek aipatutako araudi horrek xedatzen duenaren arabera esleitu baitira

4. KONTRATAZIOAREN PRINTZIO OROKORRAK

GHEren kontratatze prozedura SPKLTBren 1. artikuluan ezarritako printzipioak betetzearen mende dago; beraz, kontratuak esleitzea publizitate, lehia, gardentasun, konfidentzialtasun, berdintasun eta bereizkeriarik ezaren printzipioen mende dago, SPKLTBren 191. artikuluari jarraituz.

Printzipio horiek betetzen direla ulertuko da KBJ hauetako jarraian datozen ataletan xedatutako arauak gordetzen badira, eta arauok aplikatzeko eta interpretatzeko, honako argibideak hartuko dira kontuan:

a) **Publizitatearen eta lehiaren printzipioak** bete egin direla ulertuko da baldin eta edozein interesdunentzako aski eskuragarriak izango diren hedapen edo zabalkunde bide egokiak aplikatzen badira eta bide horiek GHEren kontratazio informazioa ematen badute, eta hala, lehiakideei merkatutako atea irekitzen bazaie.

b) **Gardentasunaren printzipioa** bete egin dela ulertuko da baldin eta, dagokion kontratua egin aurretik, edozein interesdun parte hartzeko aukera ez ezik parte hartzeko interesa adierazteko baldintzak ere emango dizkion informazio egokia hedatzen edo zabaltzen bada. Era berean, printzipio horrek berarekin ekarriko du parte hartzaile guztiek alde aurretik jakin ahal izatea esleitu nahi den kontratuari aplikatzekoak diren arau guztiak, baita arau horiek entitate guztiei modu berean aplikatzen zaizkiela ziur jakitea ere.

- d) Los contratos y negocios regulados o expresamente exceptuados por la normativa sectorial aplicable, que se adjudicarán conforme a lo que disponga dicha normativa.

4. PRINCIPIOS GENERALES DE LA CONTRATACIÓN

El procedimiento de contratación de GHE, está sometido al cumplimiento de los principios establecidos en el artículo 1 del TRLCSP, quedando por tanto sometida su adjudicación a los principios de publicidad, concurrencia, transparencia, confidencialidad, igualdad y no discriminación, de conformidad con el artículo 191 del TRLCSP.

Se entenderán cumplidos esos principios mediante la observancia de las reglas previstas en los apartados siguientes de las presentes IIC, para cuya aplicación e interpretación se observarán las siguientes indicaciones:

a) Los **principios de publicidad y concurrencia** se entenderán cumplidos mediante la aplicación de medios de difusión o divulgación adecuadas y suficientemente accesibles para cualquier interesado, que proporcionen información contractual de GHE y que permitan abrir el mercado a la competencia.

b) El **principio de transparencia** se entenderá cumplido mediante la difusión o divulgación, antes de la adjudicación del correspondiente contrato, de una información adecuada que permita que todo interesado en participar, esté en condiciones de manifestar su interés por participar. Asimismo, este principio implicará que todos los participantes puedan conocer previamente las normas aplicables al contrato que se pretende adjudicar, así como tener la certeza de que dichas normas se aplican de igual forma a todas las entidades.

KBJ hauetan xedatzen denez, balizko lizitatuak lehia sartu eta parte hartzea errazteko behar diren neurriak hartuko dira, kontratua ekonomikoki onuragarria den eskaintzari esleitze aldera.

c) **Konfidentzialtasunaren printzipioa** bete egin dela ulertuko da baldin eta GHEk berea egin badu obligazio hau: enpresaburuek emandako eta konfidentzialtat jotako informazioa ez zabaltzea, betiere horretarako arrazoi justifikaturik badago eta, bereziki, tartean sekretu tekniko edo komertzialik eta eskaintzen aspektu konfidentzialik badago. Halaber, printzipio honen aplikazioak berarekin ekarriko du kontratistek kontratua betetzean eskuratuko duten informazioaren konfidentzialtasuna errespetatu behar izatea, baldin eta agirietan edo kontratuan informazio hori konfidentzialtat jo izan bada, edo berez duen izaera dela-eta konfidentzialtat jo beharreko informazioa bada.

d) **Berdintasunaren eta bereizkeriarik ezaren printzipioa** bermatzeko, prozeduren inpartzialtasuna eta ekitatea bermatzeko behar diren neurriak hartuko dira. Neurri horien artean, gutxienez, honako hauek egongo dira:

I. Kontratuen xedea bereizkeriarik egin gabe deskribatuko da betiere, fabrikazio edo jatorri zehatz bati erreferentziarik egin gabe, ez produktu partikularrei ez marka, patente, mota, jatorri edo produkzio jakin bati erreferentziarik egin gabe, salbu-eta halako aipamenen bat egitea behar bezala justifikatzen denean eta aipamen "edo baliokide" batek lagunduta dagoenean.

II. Ez da zuzeneko edo zeharkako bereizkeriarik ekarriko duen inolako baldintzarik jarriko Europar Batasuneko beste Estatu kide batzuetatik parte har lezaketan lizitatuak aurrean.

Se adoptarán las medidas necesarias, según lo previsto en las presentes IIC, que faciliten el acceso y participación de potenciales licitadores, con el objeto de adjudicar el contrato a la oferta económicamente más ventajosa.

c) Se entenderá cumplido el **principio de confidencialidad** mediante la asunción por parte de GHE de la obligación de no divulgar la información facilitada por los empresarios que éstos hayan designado como confidencial, siempre que existan causas justificadas para ello, y, en particular, secretos técnicos o comerciales y aspectos confidenciales de las ofertas. Igualmente, la aplicación de este principio exigirá que los contratistas deban respetar el carácter confidencial de aquella información a la que tengan acceso con ocasión de la ejecución del contrato a la que se hubiese dado ese carácter en los pliegos o en el contrato, o que por su propia naturaleza deba ser tratada como tal.

d) Para garantizar el **principio de igualdad y no discriminación** se adoptarán las medidas necesarias que garanticen la imparcialidad y equidad de los procedimientos. Esas medidas comprenderán, al menos, las siguientes:

I. El objeto de los contratos se describirá siempre de forma no discriminatoria, sin hacer referencia a una fabricación o procedencia determinada, ni a productos particulares ni referirse a una marca, patente, tipo, origen o producción determinados, salvo si una referencia de este tipo se justifica adecuadamente y va acompañada de la mención "o equivalente".

II. No se impondrá ninguna condición que suponga una discriminación directa o indirecta frente a licitadores potenciales de otros Estados miembros de la Unión Europea.

III. Hautagaiei eskatzen bazaie tituluak, ziurtagiriak edo bestelako egiaztagiriak aurkezteko, beste Estatu kide batzuetatik datozen agiriak onartu egin beharko dira, tituluak, ziurtagiriak eta bestelako diploma batzuk elkarri onartzeko printzipioari jarraituz.

IV. Eskaintzak aurkezteko epeak egokiak izango dira beste Estatu kide batzuetako enpresei behar bezalako ebaluazioa egin eta eskaintza bat aurkezteko aukera emateko.

V. Esleitze prozedura batera lizitzaile bat baino gehiago aurkezten denean, GHEk bermatuko du lizitzaile guztiek kontratuari buruzko informazio berbera izango dutela, baldintza berberetan.

5. KONTRATU MOTAK

Kontrataziorako Barne Jarraibideak, batez ere, honako kontratu mota hauei aplikatzekoak izango dira:

5.1. Obra kontratua

Obra kontratutzat jotzen dira obra bat gauzatzea edo SPKLTBren I. eranskinean zerrendatutako lanetakoren bat egikaritzea xede duten kontratuak, edo sektore publikoko entitate kontratatzaileak zehaztutako beharrei erantzuten dien obra bat edozein bitarteko erabiliz egitea xede duena; era berean, hala badagokio, kontratuak dagokion proiektua idatzi beharra ere jaso ahal izango du.

III. Si se exige a los candidatos que presenten títulos, certificados u otro tipo de documentación justificativa, los documentos procedentes de otros Estados miembros deberán aceptarse de conformidad con el principio de reconocimiento mutuo de títulos, certificados y otros diplomas.

IV. Los plazos de presentación de ofertas serán adecuados para permitir a las empresas de otros Estados miembros proceder a una evaluación adecuada y presentar una oferta.

V. Cuando en un procedimiento de adjudicación concorra más de un licitador, GHE garantizará que todos ellos disponen de la misma información sobre el contrato en idénticas condiciones.

5. TIPOS DE CONTRATOS

Las IIC serán de aplicación fundamentalmente a los siguientes tipos contractuales:

5.1. Contrato de obras

Son contratos de obras aquellos que tienen por objeto la realización de una obra o la ejecución de alguno de los trabajos enumerados en el Anexo I del TRLCSP o la realización por cualquier medio de una obra que responda a las necesidades especificadas por la entidad del sector público contratante; asimismo, el contrato podrá comprender, en su caso, la redacción del correspondiente proyecto.

“Obra” da eraikuntza edo ingeniari-tza zibileko lan multzo baten emaitza, berez funtzio ekonomiko edo tekniko bat betetzera bideratua dagoena, eta ondasun higiezin bat xede duena.

Emakidadunak obra kontratuak esleitzeari dagokionez, obra publiko baten emakidadunak esleitzeko ahalmena duenean, errespetatu egin beharko ditu, hirugarrenek gauzatu beharreko obrei dagokienez, obra kontratuak esleitzeari buruzko SPKLTBren xedapenak.

5.2. Hornitzeko kontratua

Hornitzeko kontratuak dira produktuak edo ondasun higigarriak erostea, finantza errentamendua egitea, eta erosteko aukeradun edo aukera gabeko errentamendua xede dutenak.

Honako hauek hornitzeko kontratutzat joko dira betiere:

a) Enpresaburuak ondasun asko etengabe eta unitatekako prezioan entregatzeko obligazioa hartzen dueneko kontratuak, non kontratua egitean ez baita zenbateko osoa zehazten, entregak eroslearen beharren mende egongo dira eta. Dena den, kontratuok enpresaburu bakarrarekin egindako akordio esparruetarako III. liburuaren II. tituluaren II. kapituluaren xedatutako arauen arabera esleitu-tuko dira.

b) Telekomunikazio ekipamenduen eta sistemen erosketa eta errentamendua xede duten edo informazioaren tratamendua, gailuak eta programak xede dituzten kontratuak; baita azken horiek erabiltzeko eskubidea lagatzea xede dutenak ere, salbu-eta neurri-a egindako ordenagailu programak erosteko kontratuen kasuan, horiek zerbitzu kontratutzat joko dira eta.

Se entiende por “obra” el resultado de un conjunto de trabajos de construcción o de ingeniería civil, destinado a cumplir por sí mismo una función económica o técnica, que tenga por objeto un bien inmueble.

En cuanto a la adjudicación de contratos de obras por el concesionario, cuando el concesionario de una obra pública tenga el carácter de poder adjudicador, deberá respetar, en relación con las obras que hayan de ser ejecutadas por terceros, las disposiciones del TRLCSP sobre adjudicación de contratos de obras.

5.2. Contrato de suministro

Son contratos de suministro los que tienen por objeto la adquisición, el arrendamiento financiero, o el arrendamiento, con o sin opción de compra, de productos o bienes muebles.

Se considerarán en todo caso contratos de suministro los siguientes:

a) Aquellos en los que el empresario se obligue a entregar una pluralidad de bienes de forma sucesiva y por precio unitario sin que la cuantía total se defina con exactitud al tiempo de celebrar el contrato, por estar subordinadas las entregas a las necesidades del adquirente. No obstante, la adjudicación de estos contratos se efectuará de acuerdo con las normas previstas en el Capítulo II del Título II del Libro III para los acuerdos marco celebrados con un único empresario.

b) Los que tengan por objeto la adquisición y el arrendamiento de equipos y sistemas de telecomunicaciones o para el tratamiento de la información, sus dispositivos y programas, y la cesión del derecho de uso de estos últimos, a excepción de los contratos de adquisición de programas de ordenador desarrollados a medida, que se considerarán contratos de servicios.

c) Fabrikazio kontratuak, non enpresaburuak entregatu beharreko gauza edo gauzak erakunde kontratatzaileak aldeaz aurretik finkatu beharko dituen ezaugarri berezien arabera landuko diren; baita erakunde kontratatzaileak behar diren materialak -denak edo batzuk- jartzeko obligazioa hartzen duenean ere

5.3. Zerbitzu kontratua

Prestazioak ematea xede duten zerbitzu kontratuak dira, jarduera bat garatzera edo obra nahiz hornidura bat ez den emaitza bat lortzera bideratuta daudenean. SPKLTBren aplikazioaren ondorioetarako, zerbitzu kontratuak II. eranskinean zerrendatutako kategorietan banatuta daude.

6. KONTRATAZIO ORGANOA

Kontratazio organoak, kasu bakoitzean Estatutuetan xedatutakoaren arabera eta GHEri aplikatzekoak diren gainerako xedapenen arabera zehaztuko dira, beste organo batzuei modu egokian eskuordetza edo ahalordea ematearen kalte gabe.

7. GHE-REKIN KONTRATUA EGITEKO GAITASUNA

GHErekin kontratua egin ahal izango dute jarduteko gaitasun osoa duten, kontratatze debekurik ez duten eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatzen duten Espainiako zein atzerriko pertsona fisiko edo juridikoek.

c) Los de fabricación, por los que la cosa o cosas que hayan de ser entregadas por el empresario deban ser elaboradas con arreglo a características peculiares fijadas previamente por la entidad contratante, aun cuando ésta se obligue a aportar, total o parcialmente, los materiales precisos.

5.3. Contrato de servicios

Son contratos de servicios aquéllos cuyo objeto son prestaciones de hacer consistentes en el desarrollo de una actividad o dirigidas a la obtención de un resultado distinto de una obra o un suministro. A efectos de aplicación del TRLCSP, los contratos de servicios se dividen en las categorías enumeradas en el Anexo II.

6. ÓRGANOS DE CONTRATACIÓN

Los órganos de contratación se determinarán en cada caso de acuerdo con lo previsto en los Estatutos y demás disposiciones aplicables a GHE, sin perjuicio de las delegaciones o apoderamientos que puedan válidamente otorgarse a otros órganos.

7. CAPACIDAD PARA CONTRATAR CON GHE

Podrán contratar con GHE las personas físicas o jurídicas, españolas o extranjeras, que tengan plena capacidad de obrar, no estén incurso en una prohibición de contratar y acrediten su solvencia económica, financiera y técnica o profesional.

Kasu bakoitzean eskatzen diren gutxieneko gaitasun eta kaudimen eskakizunek kontratuaren xedeari lotuta egon beharko dute, eta xede horrekiko proportzionalak izan beharko dute.

Sektore publikoko erakunde guztiei aplikatzekoak diren SPKLTBren xedapenen kalte gabe, kontratatzeko kaudimen ekonomikoaren, finantzarioaren eta teknikoaren egiaztapena, dagokion lizitazioan zehazten denaren arabera egingo da kasu bakoitzean, kontratuaren inguruabarrak eta ezaugarriak kontuan hartuz, eta SPKLTBren 75-79. artikuluetan xedatutakoa aplikatu ahal izango da, kontratazio organoak egoki irizten badio.

Era berean, SPKLTBren 65.5 artikuluari jarraiki, kontratuaren inguruabarrak eta ezaugarriak kontuan hartuz, kasu bakoitzean enpresaburuaren kaudimena dagokion sailkapenaren bitartez egiaztatzea eskatu ahal izango da.

Enpresaburuak bete beharreko gutxieneko kaudimen eskakizunak eta eskatutako egiaztagiriak lizitazio iragarkian adieraziko dira eta kontratuaren gaineko agirian zehaztuko, KBJ hauen arabera eskatzeko modukoak izanez gero.

8. ESKA DAITEZKEEN BERMEAK

Fundazioak berme bat emateko eskatu ahal izango die lizitatzailerei, kontratua esleitu arte eta, hala dagokionean, kontratua formalizatu arte, beren eskaintzei eutsiko dietela ziurtatzeko; edo esleipendunari, prestazioa ondo beteko dela ziurtatzeko.

Los requisitos mínimos de capacidad y solvencia que se exijan en cada caso deberán estar vinculados al objeto del contrato y ser proporcionales al mismo.

Sin perjuicio de las disposiciones del TRLCSP que resulten aplicables a todas las entidades del sector público, la acreditación de la solvencia económica y financiera y técnica o profesional para contratar se realizará de acuerdo con lo que, en cada caso, se determine en la correspondiente licitación en atención a las circunstancias y características del contrato, pudiendo aplicarse lo previsto en los artículos 75 a 79 del TRLCSP si así se estima oportuno por el órgano de contratación.

Asimismo, de conformidad con el artículo 65.5 del TRLCSP, en atención a las circunstancias y características del contrato, podrá exigirse, en su caso, que la solvencia del empresario sea acreditada mediante la correspondiente clasificación.

Los requisitos mínimos de solvencia que deba reunir el empresario y la documentación requerida para su acreditación se indicarán en el anuncio de licitación y se especificarán en el pliego del contrato, en caso de que resulten exigibles de acuerdo con las presentes IIC.

8. GARANTÍAS EXIGIBLES

La Fundación podrá exigir la prestación de una garantía a los licitadores, para responder del mantenimiento de sus ofertas hasta la adjudicación, y en su caso, formalización del contrato o al adjudicatario, para asegurar la correcta ejecución de la prestación.

Bermea SPKLTBren 96. artikuluan xedatutako moduetakoren batean aurkeztu ahal izango da.

Bermearen zenbatekoa, eta baita bermea itzultzeko edo ezerezteko araubidea ere, kontratazio organoak ezarriko ditu, kontratuaren inguruabarrak eta ezaugarriak kontuan hartuta

9. KONTRATUAK PRESTATZEA ETA IRAGARTZEA

KBJek aipatzen dituzten kontratuak prestatzeko, zenbatekoa 50.000 eurotik gorakoa denean, agiri bat egin beharko da, eduki hauekin:

- Kontratuaren oinarritzko ezaugarriak: kontratuaren xedea.
- Oinarritzko lizitazio aurrekontua eta, hala badagokio, aurrekontu hori urteko kuotatan banatzea.
- Kontratuaren iraupena eta, hala badagokio, luzapenak zehaztea.
- Kontratua esleitzeko prozedura.
- Eskaintzak aurkezteko modua eta epea.
- Kontratataren gaitasuna eta kaudimena egiaztatzea.
- Esleitzeko irizpideak eta horien haztapena.
- Kontratua formalizatzea.

- Kontratua jasotzea eta, hala badagokio, kontratatutako prestazioaren bermearen epea.
- Prezioaren ordainketa.
- Lagatzeko eta azpikontratatzeko aukerak.
- Subrogatzeko baldintzak lan kontratuetan.
- Atzerapenen eta gauzatzeko akastunen ondoriozko zigorrak.

La garantía podrá presentarse en alguna de las formas previstas en el artículo 96 del TRLCSP.

El importe de la garantía, así como el régimen de su devolución o cancelación se fijarán por el órgano de contratación, atendidas las circunstancias y características del contrato.

9. PREPARACIÓN Y PUBLICIDAD DE LOS CONTRATOS

Para la preparación de los contratos a que se refieren las IIC, deberá elaborarse un pliego cuando su cuantía sea superior a 50.000 euros, con el siguiente contenido:

- Características básicas del contrato: Objeto del contrato.
- Presupuesto base de licitación y, en su caso, distribución del mismo en anualidades.
- Duración del contrato, con determinación, en su caso, de las prórrogas.
- Procedimiento de adjudicación del contrato.
- Forma y plazo de presentación de ofertas.
- Acreditación de la capacidad y solvencia del contratista.
- Criterios de adjudicación y su ponderación.
- Formalización del contrato.
- Recepción del contrato y, en su caso, plazo de garantía de la prestación contratada.
- Abono del precio.
- Posibilidades de cesión y subcontratación.
- Condiciones de subrogación en contratos de trabajo.
- Penalidades por demora y ejecución defectuosa.

Kontratuak iragartzeari dagokionez, 50.000 eurotik gorako zenbatekoa duten kontratuei publizitatea egin behar zaie, eta publizitate horretan lizitazioari buruzko informazioa sartu behar da GHEren kontratatzailearen profilean. Dena den, zabalkunderako bitarteko gehigarriak erabili ahal izango dira kontratuaren inguruabarrak eta ezaugarriak kontuan hartuta beharrezkoa dela ikusten bada

Lizitazioari buruzko iragarkiak honako informazio hau jasoko du:

- (a) Kontratuaren funtsezko xehetasunen gaineko deskripzio labur bat.
- (b) Kontratua esleitzeko prozedura, eskaintzak aurkezteko epea adieraziz, hala badagokio.
- (c) GHErekin harremanetan jartzeko gonbidapena, informazio gehigarria lortzearen ondorioetarako.

Era berean, **kontratuaren enpresa esleipenduna kontratatzailearen profilean argitaratuko da.**

Nolanahi ere den, kontratuaren inguruabarrak eta ezaugarriak kontuan hartuta komenigarria irizten bazaio, kontratatzailearen profilean iragarkiaren edukia zabaldu edo informazio gehigarria sartu ahal izango da.

10. ESLEITZEKO PROZEDURA

KBJ hauek aplikatzeko eta kontratu bakoitzaren esleipenari aplikatzekoak diren prozedura eta baldintzak ezartzeko, honako zenbatekoaren araberako kontratu maila hauek daude:

Respecto de la publicidad de los contratos, están sujetos a publicidad los contratos de cuantía superior a 50.000 euros, debiendo insertarse la información relativa a la licitación en el perfil del contratante de GHE. No obstante, podrán utilizarse medios adicionales de difusión en caso de que se considere necesario en atención a las circunstancias y características del contrato.

El anuncio de la licitación contendrá la siguiente información:

- (a) Una breve descripción de los detalles esenciales del contrato.
- (b) El procedimiento de adjudicación del contrato, indicando el plazo para la presentación de las ofertas, en su caso.
- (c) Una invitación a ponerse en contacto con GHE a los efectos de obtención de información adicional.

Asimismo, **se publicará en el perfil del contratante la empresa adjudicataria del contrato.**

En todo caso, si las circunstancias y características del contrato lo aconsejan, podrá ampliarse el contenido del anuncio o incorporarse información adicional en el perfil de contratante.

10. PROCEDIMIENTO DE ADJUDICACIÓN

Para la aplicación de las presentes IIC y establecer los procedimientos y requisitos aplicables a la adjudicación de cada contrato, se distinguen los siguientes Niveles de contratos en función de la cuantía de los mismos:

10.1. mailako kontratuak.

Jarraian datorren kopurua, edo hortik gora, kalkulatzeko zaien kontratuak:

- 18.000 euro (BEZ kanpo).

Prozedura honetan sartzen diren kontratuak zuzenean esleitu dira. Kontratazioaren arduradunak enpresa bakar bati eskatuko dio eskaintza, eta enpresa horri esleitu dio zuzenean.

Halako kontratuak esleitzeko, nahikoa izango da espedientean jasota egotea gastuaren onarpena eta dagokion faktura.

10.2. mailako kontratuak.

Kontratu hauei kalkulatzeko zaien balioa honako zenbateko hauen artean dabil:

- 18.000 eurotik 50.000 euro artekoak (BEZ kanpo).

Prozedura honetan sartzen diren kontratuak arau hauen arabera esleitu dira:

1. Ahal denean, kontratua gauzatzeko gai diren hiru enpresari gutxienez eskatuko zaie eskaintza.

Edonola ere, eskaintza enpresa bakar bati eskatu ahal izango zaio arrazoi tekniko edo artistikoak direla-eta, edo eskusibotasun eskubideak babesteko arrazoiak direla-eta, kontratua soilik enpresaburu jakin baten esku utzi daitekeenean.

10.1. Contratos de Nivel 1.

Contratos cuyo valor estimado sea igual o inferior a:

- 18.000 euros (IVA excluido).

Los contratos incluidos en este procedimiento se adjudicarán de forma directa. El responsable de la contratación solicitará oferta a una única empresa y realizará la adjudicación directamente a la misma.

Para la adjudicación de estos contratos será suficiente con que consten en el expediente la aprobación del gasto y la factura correspondiente.

10.2. Contratos de Nivel 2.

Contratos cuyo valor estimado esté comprendido entre las siguientes cuantías:

- Superiores a 18.000 euros hasta 50.000 euros (IVA excluido).

Los contratos incluidos en este procedimiento se adjudicarán con sujeción a las siguientes reglas:

1. Siempre que resulte posible, se solicitará oferta, al menos, a tres empresas capacitadas para llevar a cabo el contrato.

En todo caso, podrá solicitarse oferta a una sola empresa cuando, por razones técnicas o artísticas o por motivos relacionados con la protección de derechos de exclusividad, el contrato sólo pueda encomendarse a un empresario determinado.

2. GHEk kontratuaren edozein aspektu negoziatu ahal izango du lizitatzailleekin eta negoziazioan zehar lizitatzaille guztiek tratu berbera jasoko dutela zainduko du eta ez du bereizkeriarik egingo informazioa ematean.
3. Kontratazioaren arduradunak eskaintzei buruzko taula konparatibo bat egingo du eta kontratua eskaintzarik onuragarrienari esleitzea proposatuko du.
4. Egindako gonbidapenak, jasotako eskaintzak eta onartzeko zein baztertzeko arrazoiak jasota geratuko dira.

10.3. 3. mailako kontratuak.

Kontratu hauei kalkulatzeko zaien balioa honako zenbaterako hauen artean dabil:

- 50.000 euro edo hortik gorako kontratuetatik hasi eta 5.186.000 euro arterainokoak (BEZ kanpo) obra kontratuen kasuan.
- 50.000 euro edo hortik gorako kontratuetatik hasi eta 207.000 euro arterainokoak (BEZ kanpo) zerbitzu eta hornidura kontratuen kasuan.

Prozedura honetan sartzen diren kontratuak arau hauen arabera esleituiko dira:

1. Kontratazio prozedurari honakoak adierazten dituen txostenarekin emango zaio hasiera: kontratuaren bidez bete nahi den beharraren egiaztapena, kontratatu beharreko zerbitzuen edo ondasunen ezaugarri nagusiak, eta behar besteko kreditua dagoela egiaztatzen duen agiria

2. GHE podrá negociar cualquier aspecto del contrato con los licitadores y durante el curso de la negociación velará porque todos los licitadores reciban igual trato y no facilitará información de forma discriminatoria.
3. El responsable de la contratación elaborará una tabla comparativa de las ofertas y propondrá la adjudicación del contrato a la oferta que resulte más ventajosa.
4. Se dejará constancia de las invitaciones cursadas, de las ofertas recibidas y de las razones de aceptación o rechazo.

10.3. Contratos de Nivel 3.

Contratos cuyo valor estimado esté comprendido entre las siguientes cuantías:

- Iguales o superiores a 50.000 euros hasta 5.186.000 euros (IVA excluido) en el caso de contratos de obras.
- Iguales o superiores a 50.000 euros hasta 207.000 euros (IVA excluido) en el caso de servicios y suministros.

Los contratos incluidos en este procedimiento se adjudicarán con sujeción a las siguientes reglas:

1. El procedimiento de contratación se iniciará mediante un informe acreditativo de la necesidad cuya satisfacción se pretende, las características generales de los bienes o servicios a contratar y la acreditación de existencia de crédito suficiente.

2. Kontratatu beharreko ondasunaren edo zerbitzuaren ezaugarri teknikoei buruzko agiri deskriptibo bat egingo da, eta horri gehituko zaio baldintza berezien agiri bat, KBJ hauetako 9. atalean adierazitako edukiarekin.
 3. Publizitatea egiteko, lizitazio eta esleipen iragarkia argitaratuko da GHEren kontratatzailearen profilean. GHEekin kontratua egiteko interesa duen lizitatuile guztiek aurkeztu ahal izango dute beren eskaintza. Interesa daukaten lizitatuileek eskaintzak aurkezteko duten epea kontratatzailearen profilean argitaratzen den lizitazio iragarkian ezarriko da (KBJ hauetako 9. atala)
 4. Lehenik eskaintza teknikoak baloratuko dira. Bigarrenik, behin proposamen ekonomikoak irekitzeko ekitaldia eginda, kontratazioren erantzukizuna duen departamentuak/arloak eskaintzen txosten konparatiboa egingo du, baldintza berezien agirian ezarritako balorazio irizpideei jarraituz. Esleipena eskaintzarik onuragarrienaren alde eta ebazpen arrazoitu bidez egingo da.
 5. Esleipenaren emaitzak lizitatuile guztiei jakinaraziko zaizkie eta kontratatzailearen profilean argitaratuko dira, esleipendunari kontratua formalizatzerara dei eginez.
2. Se elaborará un pliego descriptivo de las características técnicas del bien o servicio a contratar, al que se añadirá un pliego de condiciones particulares con el contenido indicado en el apartado 9 de las presentes IIC.
 3. La publicidad se llevará a cabo mediante la publicación en el perfil del contratante de GHE del anuncio de licitación y de la adjudicación. Podrán presentar oferta todos los licitadores interesados que estén capacitados para contratar con GHE. El plazo para la presentación de las ofertas por los licitadores interesados se establecerá en el anuncio de licitación que se publique en el perfil del contratante (apartado 9 de las presentes IIC).
 4. En primer lugar se valorarán las ofertas técnicas. En segundo lugar, una vez celebrado el acto de apertura de las proposiciones económicas, el departamento/área responsable de la contratación realizará un informe de comparación de las ofertas, conforme a los criterios de valoración establecidos en el pliego de condiciones particulares. La adjudicación se producirá a favor de la oferta que resulte económicamente más ventajosa y mediante resolución motivada.
 5. Los resultados de la adjudicación serán notificados a todos los licitadores y se publicarán en el perfil de contratante, emplazando al adjudicatario a la formalización del contrato.

10.4. Diruz lagundutako kontratuak

Diru laguntzen bidez edo Sektore Publikoko antzeko beste diru sarrera batzuen bidez finantzatutako kontratuetan, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean, azaroaren 17koan, eta gaiari buruzko estatuko edo autonomia erkidegoko gainerako arauetan ezarritako baldintzak beteko dira.

Diru-laguntza publikoen kontura finantzatutako kontratuetan bereziki, azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrari jarraituz, gastu kopuruak urriaren 30eko 30/2007 Sektore publikoko kontratuen Legeak ezartzen dituen mugak gainditzen dituzenean, onuradunak gutxienez hiru hornitzaile ezberdinei eskaintzak eskatu beharko dizkie, obra, zerbitzu edo erosketa konpromisoa burutu baino lehen, nola eta ezaugarri bereziak izanik, merkatuan hornitzaile nahiko ez egon edo gastua eginda izan diru-laguntza jaso aurretik

10.5. Kontratatzeko beste prozedura batzuk

SPKLTBn xedatutako esleitzeko beste prozedura batzuetara jo ahal izango da, baldin eta, betiere, horietara jo ahal izateko Legean ezarritako baldintzak betetzen badira, eta prozedura horiek lehia irekitzea dakartenean, eta ez lehia murriztea edo GHEk jarraitzen dituen gainerako printzipioak murriztea.

10.4. Contratos subvencionados

En los contratos cuya financiación provenga de subvenciones u otros ingresos análogos provenientes del Sector Público se cumplirán los requisitos establecidos en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y demás normativa estatal o autonómica en la materia.

En especial, en los contratos financiados con cargo a subvenciones públicas, de acuerdo a la Ley 38/2003 de 17 de noviembre General de Subvenciones, cuando el importe del gasto subvencionable supere las cuantías establecidas en la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector público para el contrato menor, el beneficiario deberá solicitar como mínimo tres ofertas de diferentes proveedores, con carácter previo a la contratación del compromiso para la obra, la prestación del servicio o la entrega del bien, salvo que por sus especiales características no exista en el mercado suficiente número de entidades que los realicen, presten o suministren, o salvo que el gasto se hubiere realizado con anterioridad a la subvención.

10.5. Otros Procedimientos de Contratación

Podrá acudirse a otros procedimientos de adjudicación previstos en el TRLCSP, siempre y cuando se cumplan con los requisitos establecidos en la Ley para poder acudir a los mismos, y siempre que estos procedimientos supongan una apertura a la concurrencia y nunca una restricción a la misma o a los demás principios a los que está sujeta GHE.

11. KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA ETA EDUKIA

Kontratua agiri idatzi bidez formalizatuko da, oro har, lizitatzaillei esleipena jakinarazten zaien egunetik zenbatzen hasi eta 15 egun balioduneko epean, eta betiere dagokien agiri edo eskaintzetan bestelako eperik zehaztu ez bada. GHEk kontratua formalizatuz adieraziko du bere kontratuzko adostasuna, eta horrekin kontratua burutu dela ulertuko da.

1. mailako kontratuetan, formalizazioa egiteko nahikoa izan daiteke dagokion aurrekontua bidali eta idatziz onartu egin dela jakinaraztearekin.

2 eta 3. mailako kontratuen kasuan, berriz, kontratuok honakoa jaso beharko dute:

- a. Aldeen identifikazioa.
- b. Xedearen definizioa.
- c. Kontratua osatzen duten agirien zerrenda.
- d. Egiazko prezioa edo hori zehazteko modua.
- e. Iraupena eta hasteko zein amaitzeko kalkulaturako datak. Luzapenak eta horien datak, halakorik aurreikusita balego.
- f. Prestazioak eman eta jasotzeko baldintzak.
- g. Ordaintzeko baldintzak.
- h. Kontratua suntsiaraztea eragin dezaketen kasuak.
- i. Kontratistari ezarritako konfidentzialtasun betebeharren norainokoa, denboran eta helburuetan.

11. FORMALIZACIÓN Y CONTENIDO DEL CONTRATO

La formalización del contrato se instrumentará mediante documento escrito que se formalizará con carácter general en el plazo de 15 días hábiles siguientes a aquél en que se reciba la notificación de la adjudicación a los licitadores, siempre y cuando no se haya determinado un plazo distinto en los pliegos u ofertas correspondientes. El consentimiento contractual de GHE se manifestará mediante la formalización del contrato, entendiéndose con ello perfeccionado el contrato.

Cuando se trate de contratos de Nivel 1, la formalización podrá consistir en la emisión del correspondiente presupuesto y la comunicación de su aceptación escrita.

En el caso de los contratos de Nivel 2 y 3, éstos deberán tener el siguiente contenido:

- a. Identificación de las partes.
- b. Definición de su objeto.
- c. Enumeración de los documentos que lo integran.
- d. Precio cierto o forma de su determinación.
- e. Duración y fechas estimadas de comienzo y finalización. Prórrogas, y sus fechas, si estuvieran previstas.
- f. Condiciones de entrega y recepción de las prestaciones.
- g. Condiciones de pago.
- h. Supuestos en que proceda la resolución del contrato.
- i. Extensión objetiva y temporal del deber de confidencialidad impuesto en cada caso al contratista.

12. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratazioaren alorreko jarraibide hauetan adierazten diren kontratuak prestatzeari, esleitzeari, ondorioei, betetzeari eta amaitzeari buruzko auziak ebazteko garaian, jurisdikzio ordena zibila izango da eskuduna.

12. JURISDICCIÓN COMPETENTE

El orden jurisdiccional competente para conocer las cuestiones litigiosas relativas a la preparación, adjudicación, efectos, cumplimiento y extinción de los contratos a que se refieren las presentes instrucciones será el orden jurisdiccional civil

KONTRATATZEKO PROZEDURA

| KONTRATUAREN MAILA | PROZEDURA | KONTRATAZIO ORGANOA | PUBLIZITATEA | AGIRIAK |
|---|---|--|---|--------------------|
| 1. maila 18.000 euroko edo hortik beherako kontratuak | Zuzeneko esleipena | Fundazioko zuzendaria | Ez | Ez |
| 2. maila 18.000 eurotik gorako eta 50.000tik beherako kontratuak | Eskaintzak 3 lizitatzailereri eskatu | Fundazioko zuzendaria | Ez | Ez |
| 3. maila 50.000 edo hortik gorako kontratuak, eta zenbateko haueetatik beherakoak: 1. 5.186.000 € obra kontratuetan. 2. 207.000 € zerb/horn. kontratuetan. | Edozein lizitatzailereri parte har dezake | - 100.000raino: Fundazioko zuzendaria - 100.000-200.000: Sinadura mankomunatuak (Fundazioko zuzendaria eta Fundazioko idazkaria edo presidentea) - 200.000tik gora: Patronatua | Bai | Bai |
| DIRUZ LAGUNDUTAKO KONTRATUAK, DIRULAGUNTZEI BURUZKO 38/2003 LEGE OROKORRARI JARRAITZEN DIOTENAK | Eskaintzak 3 lizitatzailereri eskatu | - 100.000raino: Fundazioko zuzendaria - 100.000-200.000: Sinadura mankomunatuak (Fundazioko zuzendaria eta Fundazioko idazkaria edo presidentea) - 200.000tik gora: Patronatua | Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean eskatzen dena | Ez da aplikatzekoa |
| ERREGULAZIO HARMONIZATUAREN MENDE DAUDEN KONTRATUAK | SPKLTBren 190. artikulua aplikatu | Patronatua | Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala eta kontratatzailearen profila | Bai |
| DIRUZ LAGUNDUTAKO KONTRATUAK, ERREGULAZIO HARMONIZATUAREN MENDE DAUDENAK (SPKLTB 17. ART.) | SPKLTBren 190. artikulua aplikatu | | | |

PROCEDIMIENTO DE CONTRATACIÓN

| NIVEL DE CONTRATO | PROCEDIMIENTO | ÓRGANO DE CONTRATACIÓN | PUBLICIDAD | PLIEGOS |
|---|---|--|-------------------------------|--------------|
| Nivel 1 Contratos de cuantía igual/inferior a 18.000 euros | Adjudicación directa | Director Fundación | No | No |
| Nivel 2 Contratos de cuantía superior a 18.000 e inferior a 50.000 euros | Solicitud de ofertas a 3 licitadores | Director Fundación | No | No |
| Nivel 3 Contratos de cuantía igual/superior a 50.000 e inferior a las siguientes cuantías: 3. 5.186.000 € en contratos de obras. 4. 207.000 € en contratos de serv/sum. | Abierto a la participación de cualquier licitador | - Hasta 100.000: Director Fundación - 100.000-200.000: Firmas mancomunadas (Director Fundación y el Secretario o el Presidente de la Fundación) - Superior a 200.000: Patronato | Sí | Sí |
| CONTRATOS SUBVENCIONADOS SUJETOS A LA LEY 38/2003 GENERAL DE SUBVENCIONES | Solicitud de ofertas a 3 licitadores | - Hasta 100.000: Director Fundación - 100.000-200.000: Firmas mancomunadas (Director Fundación y el Secretario o el Presidente de la Fundación) - Superior a 200.000: Patronato | La exigida en la LGS | No Aplicable |
| CONTRATOS SUJETOS A REGULACIÓN ARMONIZADA | Aplicación del artículo 190 TRLCSP | Patronato | DOUE y perfil del contratante | Sí |
| CONTRATOS SUBVENCIONADOS SUJETOS A REGULACIÓN ARMONIZADA (ART. 17 TRLCSP) | Aplicación del artículo 190 TRLCSP | | | |

